

**NON DEUS,
SED FEMINA**
Unai Goti
Markina, 16 urte

1

Aurkituko ote dut
zabalik zerua
handikan ikusteko
nire aingerua
hau gertatu zenetik
neronen burua
maitasun ta penetan
daukat murgildua.

2

Iluntze goiztiar bat
urrian erdian
Markinako plazako
Karmengo iturrian
han zebilen jendea
joan ta etorrian
orduantxe busti zen
jauntxoa eztian.

3

Haurtzaroan herriko
ederrena baitzen
jauntxoak gurariaz
zion begiratzen
gazte-gaztea zela
ezkondu zituzten
kondenatuz betiko
berari plazatzen

4

Herriko jende hura
azkar zen ohartu
diruak kontu hartan
parte zuela hartu
txutxu-mutxu gogoa
asko zen indartu
ez dugu hura ez zen
herrian onartu.

5

Jauregian aurretik
pasaz jende dana
herriak hartzen zuen
be(g)iratzeko lana
norbaitek ikusi zun
katu beltzarana
jauregi inguruan
sarri ibiltzen zana.

6

Egueneko salmentan
Markina zen batzen
kuxkux eta marmarrak
kontatu eta lotzen
kontu haren muturrak
erraz ziren batzen;
neska hura sorgina
zela zabaldu zen.

7

Herria izurriteak
zuen harrapatu,
eguenetik gauera
asko zen indartu,
norbaitek hitz faltsuaz
aise zuen salatu
“sorgina” kalteetaz
zela arduratu.

8

Herriak gaizki ei zuen
neronen fedean
justizia eskutan
beretzat hartzean
oihu bat jaurti nuen
nire ezinean
maite nuen kuttuna
erre zutenean.

9

Ondo a(d)itu duzue
nik neuk nuen maite
jauntxo hura neu nauzu
baina ezerezen jabe
ez naiz su gar hauexek
ez banaramate
orain haren albora
lurretik aparte.